



motorola

motorolaone  
VISION

read me

*Caution: before using your phone, please read  
the safety, regulatory and legal information  
provided with your product.*

**Euskaltelek itzulitako eta  
ekoiztutako eskuliburua**



euskaltel

android one

# motorola one vision

**Kontuz:** Telefonoa erabili aurretik, irakurri produktuarekin batera datorren segurtasunari, araudiari eta legeei buruzko informazioa.




Telefonoaren SAR balioak ikusteko, zoaz SAR gunera <https://motorola.com/sar>.

Produktu honek irrati-maiztasunerako esposizioari buruz aplikatu beharreko estatuko eta nazioarteko arauak (SAR) betetzen ditu, normal erabiltzen bada buruaren ondoan, eta 5 mm-ra jartzen bada soinean eramatean. SAR arauak segurtasun-marjina bat dute pertsona ororen segurtasuna bermatzeko, haien adina eta osasun-egoera edozein dela ere.

Telefonoko SAR balioei buruzko informazio gehiago nahi izanez gero, irristatu hatza gora pantaila nagusian, eta ukitu > **Ezarpenak** > **Sistema** > **Lege-informazioa** > **RF information**. Informazioa webgunean irakurtzeko, ikusi [www.motorola.com/rfhealth](http://www.motorola.com/rfhealth).

## Begiratu batean

Has gaitezen! Hasierako fasean gidatuko zaitugu, eta esango dizugu telefonoari eta haren ezaugarri bikainei buruzko informazio gehiago non aurki dezakezun.



# Txartelak sartzeara

Modeloaren arabera, telefonoak bi SIM txartel onartzen ditu.


**Kontuz:** ziurtatu tamaina egokiko SIM txartela erabiltzen ari zarela, eta ez moztu.



Nano SIMa

## Sartu nanoSIM txartela eta memoria-txartelak.

Txartela ateratzeko, sartu SIMerako tresna erretiluaren zuloan.




Sartu SIM txartela urrekoloreko kontaktuak behera begira dituela. Aukera duzu microSD txartel bat sartzeko (bereiz saltzen da).


**SIM txartel bakarreko modelo:**



**Bi SIM txarteletako modelo:**



## Sartu berriz erretilua telefonoan.



**Kontuz:** Kontu handiz erabili erretilua, okertu ez dadin.



## Prozesua amaitzea


Konektatu kargagailua, telefonoa erabat kargatu eta, ondoren, piztu ezazu. Segitu pantailan agertuko diren jarraibideei hasteko.

Bi SIM txartel dituzten telefonoen kasuan, segi jarraibideei biak konfiguratzeko.


**Oharra:** ondo kargatzeko, erabili Motorolaren kargagailu bat. Ez da gomendatzen beste kargagailu batzuk erabiltzea.

### Kargatu telefonoa.

Telefonoa erabiltzen hasi aurretik, kargatu erabat telefonoak berak dakarren kargagailuarekin.



### Piztu telefonoa.




Luze sakatu pizteko tekla, pantaila piztu arte.

## Segurtasuna eta erosotasuna

Blokeatu, desblokeatu eta askoz gehiago, erraz-erraz

- **Hatz-marka eta pantaila blokeatzea:** irristatu hatza pantaila nagusian gora, eta ukitu  **Ezarpenak > Segurtasuna eta kokapena.**
- **Botoi bidez nabigatzea:** pantaila nagusian, ukitu  **Moto > Moto Actions.**



**Hatz-marken sentsoarea.**  
Ukitu desblokeatzeko

# Aplikazio erabilgarriak

Prest zaudenean, probatu aplikazio hauek, zure telefono berriarekin zenbat gauza egin ditzakezun ikus dezazun.



**Zoaz hona:** irristatu pantaila nagusian gora, zure aplikazio guztiak ikusteko.

- **Moto:** ezagutu itzazu denbora aurrezteko eta zure eguneroko lanak errazteko diseinatutako ezaugarri bereziak. Gainbegiratu pantailako aukerak, zure telefonoak egin ditzakeen ekintzak eta askoz aukera gehiago.
- **Kamera:** kamerak argazki eta bideo garbiak eta argiak ateratzen ditu, baina hori ez hori bakarrik. Ezagutu beste funtzio batzuk, hala nola Google Lens™, fokuratze selektiboa eta atzealdea ordezkatzea.
- **Googleren laguntzailea:** zereginak behar dituzun unean bertan egin ditzakezu, ahots bidez. Deitu eta bidali testu-mezuak, jaso gogorarazpen bat dendatik pasatzeko eta askoz gehiago. Soil-soilik, luze sakatu hasierako botoia hasteko.
- **YouTube:** ikusi zure kanal gogokoak, entzun gustatzen zaizun musika eta igo bideoak munduko edozein pertsonarekin partekatzeko.
- **Google Duo:** kalitate goreneko bideo-deiak, erraz-erraz, 3G edo 4G sare batera edo wifi-sare batera konektatuta bazaude.
- **Google Photos:** argazki eta bideo guztiak automatikoki antolatuta, nahi duzuna gorde eta partekatzeko.

**Oharra:** softwarea sarritan eguneratzen da; beraz, baliteke zure telefonoak ez edukitzea aplikazio edo funtzio guztiak zenbakituta.

## Laguntza eta gehiago

Eskuratu erantzunak, eguneratzeak eta informazioa:

- **Laguntza:** irristatu hatza pantaila nagusian gora, eta ukitu  **Ezarpenak > Help** telefonoa erabiltzen ikasteko, eta laguntza jasotzeko.
- **Informazio gehiago eskuratzea:** softwarea, erabiltzailearen eskuliburuak eta askoz gehiago dituzu hemen: [www.motorola.com/mymotoone](http://www.motorola.com/mymotoone)
- **Aplikazioak eskuratzea:** ukitu  **Play Store** aplikazioak bilatzeko eta deskargatzeko.
- **Elkarrizketa batera batzea:** hemen gaituzu: YouTube™, Facebook™ eta Twitter.

## Non aurkitu dezaket araudiari, legeei eta segurtasunari buruzko informazioa?

Informazio garrantzitsu hori errazago eskuratzeko, telefonoaren doikuntzen menuan eta webgunean kontsultatu dezakezu. Berrikusi material hori telefonoa erabili aurretik. Telefono konektatu batetik material hori eskuratzeko, irristatu hatza pantaila nagusian gora, eta, ondoren, ukitu **Ezarpenak > Sistema > Lege-informazioa** eta hautatu gai bat. Materiala webgunean eskuratzeko, joan hona: [www.motorola.com/device-legal](http://www.motorola.com/device-legal).



**Uraren uxagarria.** Telefonoaren diseinu hidrofugoak ur-zorrotada arinetatik babesten du mugikorra, —hala nola ustekabeko isuriak, zipriztinak edo euri pixka bat—. Ez dago diseinatuta uretan murgiltzeko edo presio altuko uretan edo beste likido batzuetan sartzeko. Denborarekin, urarekiko babes hori gutxitu egiten da. Ez da iragazgaitza. Zure telefonoak ura ukitzen badu, lehortu itzazu telefonoa eta atakak erabat, zapi leun eta garbi batez. Ez kargatu telefonoa bustita baldin badago. Urak eragindako kalteak ez daude bermearen barruan. Informazio gehiago nahi izanez gero, ikusi laguntza. Irristatu hatza pantaila nagusian gora, eta ukitu **Ezarpenak > Help.**

**Bateriaren segurtasunari buruzko informazioa.** Telefonoa lehen aldiz muntatu, kargatu edo erabili baino lehen, irakurri produktuarekin batera datorren lege-informazioa eta segurtasun-informazio garrantzitsua.

Telefonoak ez badu erantzuten, luze sakatu pizteko tekla, pantaila itzali eta telefonoa berrabiarazi arte.

Zure segurtasunerako, Motorolak onartutako zerbitzu-zentro bateko langileek edo hark onartutako aditu gaitu batek bakarrik atera dezakete telefonoaren bateria.

#### **Abisua:**

- Ez saiatu bateria ateratzen edo ordeztan; baliteke bateria hondatzea, eta zu erretzea edo min hartzea.
- Ez kolpatu edo okertu (banden erabilera arrunta salbu), eta ez jarri telefonoa berotan edo likidotan. Baliteke bateria hondatzea eta zu erretzea edo min hartzea.
- Ez sartu gailua mikrouhin-labe, labe edo lehorgailu batean.

#### **Mugikorra bolumen handian erabiltzeari buruzko abisua**

Entzumenari kalterik ez eragiteko, ez entzun musika bolumen altuan denbora luzez.



**Materiala botatzea eta birziklatzea.** Lagundu! Ez bota produktua edo osagarri elektrikoak (hala nola kargagailuak, entzungailuak edo bateriak) etxeko zakarretara. Estatuko birziklatze- eta bilketa-baldintzen arabera bota behar dituzu bilgarria eta produktuaren eskuliburuak. Motorolak onartutako estatuko birziklatze-planeri eta Motorolaren birziklatze-jarduerei buruzko informazio gehiago duzu webgune honetan: [www.motorola.com/recycling](http://www.motorola.com/recycling).



**Erabilera.** Telefono honek onartzen ditu datu asko erabiltzen dituzten aplikazioak eta zerbitzuak; beraz, gomendagarria da zure datu-planak zure beharrak asetzen dituen aztertzea. Informazio gehiago eskuratzeko, jarri harremanetan zerbitzu-hornitzailearekin. Litekeena da aplikazio eta funtzio batzuk ez egotea erabilgarri herrialde guztietan.

**Bermea.** Produktu honek Motorolaren berme mugatua du. Telefonoaren bermeari buruzko informazio gehiago nahi izanez gero, irristatu hatza gora pantaila nagusian, eta ukitu **Ezarpenak > Sistema > Lege-informazioa > Warranty**, edo zoaz hona [www.motorola.com/device-legal](http://www.motorola.com/device-legal). Bermearen kopia bat eskuratu dezakezu Motorolarekin harremanetan jarrita: Motorola Mobility LLC.

Attention Customer Service — Warranty Request, 222 West Merchandise Mart Plaza, Suite 1800, Chicago, IL 60654.

**Arbitrajea eta uko egitea.** Legeak berariaz debekatzen ez badu, Motorolaren produktuen ondoriozko edo produktuei lotutako gorabeherak eta erreklamazioak arbitraje-prozesu lotesle baten bidez ebatziko dira, auzitegi batean egin beharrean, uko egitea erabakitzen ez bada. Uko egiteko, idatziz bidali uko egiteko oharra erosketa egiten duzuetik 30 eguneko epean. Idatzian, jarri izena, helbidea, telefono-zenbakia, gailua eta gailuaren serie-zenbakia, eta adierazi Motorolari arbitrajeari buruzko xedapen honi uko egiten ari zarela. Helbide honetara bidali behar duzu: Motorola Mobility LLC, 222 West Merchandise Mart Plaza, Suite 1800, Attn: Arbitration Provision Opt-Out, Chicago, IL 60654 o [arbitrat@motorola.com](mailto:arbitrat@motorola.com). Telefonoaren serie-zenbakia (IMEI) zein den jakiteko, irristatu hatza gora pantaila nagusian, eta ukitu **Ezarpenak > Sistema > Acerca del teléfono**. Arbitrajeari buruzko informazio gehiago nahi izanez gero, irristatu hatza gora pantaila nagusian, ukitu **Ezarpenak > Sistema > Lege-informazioa > Arbitration and opt-out**, edo zoaz hona: [www.motorola.com/device-legal](http://www.motorola.com/device-legal).

**Lege-oharrak.** Zenbait zerbitzu, funtzio eta aplikazio sarearen menpe daude, eta gerta daiteke eremu guztietan erabilgarri ez egotea; baliteke beste zehaztapen, baldintza eta tarifa batzuk aplikatzea ere. Informazio gehiago eskuratzeko, jarri harremanetan zerbitzu-hornitzailearekin. Produktuaren funtzio, ezaugarri eta bestelako zehaztapenak eta erabiltzailearen eskuliburu honetako informazioa informaziorik berrienean oinarrituta daude, eta zehatzak dira inprimatzeko unean. Motorolak eskubidea du, aurrez jakinarazi gabe, informazioa edo zehaztapenak zuzentzeko edo aldatzeko.

**Copyrighta eta marka komertzialak** MOTOROLA, M estilizatuaren logotipoa eta MOTO marken familia Motorola Trademark Holdings LLCren marka komertzialak edo marka komertzial erregistratuak dira. Lenovoren marka komertziala da LENOVO. Google Inc.-en marka komertzialak dira Google, Android, Google Play eta beste marka batzuk eta horien logotipo batzuk. MicroSDren logotipoa SD-3C LLCren marka erregistratua da. Dolby teknologiarekin, Dolby Laboratories-en lizentziapean fabrikatua. Dolby Laboratories-en marka komertzialak dira Dolby, Dolby Audio eta D bikoitzaren sinboloa. Produktuen edo zerbitzuen gainerako izen guztiak beren jabeenak dira. © 2019 Motorola Mobility LLC. Eskubide guztiak erreserbatuta.

Produktuaren IDa: **motorola one vision** (XT1970-3 modelook) Eskuliburu-zenbakia: HQ60114862000-A

Motorola Mobility LLC 222 W. Merchandise Mart Plaza Chicago, IL 60654 [www.motorola.com](http://www.motorola.com)



**HQ60114862000-A**



**Printed in China**

**motorola.com**

